# Irisgarritasun deklarazioa

## KONPROMISORAKO JARRAIBIDEAK

2025eko iraila




araba álava
foru aldundia diputación foral

## Aurkibidea

IRISGARRITASUNAREN ADIERAZPENAREN SARRERA ........ 3
IRISGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA ........ 3

## IRISGARRITASUNAREN ADIERAZPENAREN SARRERA

**Arabako Foru Aldundia** lanean ari da bere webgunea ahalik eta pertsona gehienentzat esk uragarri eta erabilgarri izan dadin, edozein direla ere haren gaitasunak edo baliabide tekn ologikoak.

Esperientzia digital irisgarria bermatzeko, ataria diseinu unibertsaleko irizpideei jarraituz sortu da, eta administrazio publikoen webguneetarako irisgarritasunari buruzko egungo ara udia betez.

## IRISGARRITASUNAREKIKO KONPROMISOA

Webgunea World Wide Web Partzuergoaren (W3C) Web Erabilerraztasunerako Ekimenak (WAI) ezarritako **Web Edukirako Erabilerraztasunerako Gidalerroen (WCAG)** arabera diseinatu eta garatu da. **1112/2018 Errege Dekretuan** ezarritakoaren arabera, sektore publikoko webguneen eta aplikazio mugikorren irisgarritasunari buruzkoa.

### Adostasun-maila

Arabako Foru Aldundiaren atariak partzialki betetzen ditu **WCAG 2.1en (Web Content Accessibility Guidelines)** irizpideak, **AA** mailan, irisgarritasun digitalari buruzko UNE-EN 301549:2022 europar araudian ezarritakoaren arabera eta 11/2007 Legearen eta 1112/2018 Errege Dekretuaren zehaztapen teknikoen arabera.

Hala ere, salbuespenak daude atarian, eta ahultasun-kasu espezifiko batzuk detektatu dira.

**Edukia ez dago eskuragarri**

Ondoren jasotzen den edukia ez da irisgarria, arrazoi hauengatik:

a) **1112/2018 Errege Dekretuarekin bat ez etortzea**

— Multimedia-edukia: bideo batzuek ez dute testu-transkripziorik, azpititulurik edo audio-deskribapenik.

— Orrialdearen kodea: web orri batzuek akatsak dituzte etiketatze semantikoan eta prozesamenduan.

— Teklatu bidezko nabigazioa: kasu batzuetan fokua ez dago erabat ikusgai.

— Testuak eta estekak: web-orriren batek ez du goibururik edo etiketa deskribatzailerik.

— Web-orriren batean edizio-akats puntualak egon litezke.

b) **Neurriz kanpoko karga**

— Ez da aplikatzen.

c) **Edukia ez dago legeria aplikagarriaren eremuan**

— PDF artxibo ofimatikoak edo beste formatu batzuk egon litezke, irisgarritasun-baldintza guztiak osorik betetzen ez dituztenak. Hala ere, gehienek bete dezaten saiatu dira.

## Adostasun-maila

Arabako Foru Aldundiak kanpoko enpresa baten laguntza du web orrian eskuragarri dauden elementuen bilakaera berrikusteko.

## Eskaerak eta iradokizunak

Atariak erreklamazio eta iradokizun formulario bat jartzen du erabiltzaileen eskura. Erabiltzaileek aukera izan dezaten:

— Webgunearen aldetik ez-betetzeren baten berri ematea.

— Edukira sartzeko orduan aurkitutako zailtasunak transmititzea.

— Webgunearen irisgarritasuna hobetzeko beste edozein kontsulta edo iradokizun egitea.

En este caso, también podría ponerse en contacto con la Unidad Web, a través del siguiente correo electrónico: webunitatea@araba.eus.

## Nabigatzaileak eta Responsive diseinua

— Webgunea optimizatuta dago Microsoft Internet Explorer 8.0 nabigatzaileentzat edo bertsio berriagoentzat eta FireFox, Safari, Opera eta Google Chrome-ren azken bertsioentzat. Gomendatutako gutxieneko web bereizmena 1280x1024 da.

— Webgunea Responsive bistaratzeko diseinatuta dago, eta, beraz, ezin hobeto bistaratzen da tablet eta mugikorretan. Gailu hauetan optimizatuta dago Chrome for mobile, Firefox for mobile, Safari mobile, Opera Mini eta Android nabigatzaile natiboaren azken bertsioetan bistaratzeko.

## Deklarazio hau prestatzea

— Azken berrikuspenaren data: 2025eko abuztuaren 4a.

— Ebaluazio-metodoa: autoebaluazioa kanpo-ikuskaritzekin konbinatuta, horretarako diseinatutako programa eta luzapen teknologikoen bidez.

araba álava
foru aldundia diputación foral